


29-3-2023

Ihesgelak erabiltzeko GIDA (2022-2023)

E! **Erandio**
UDALA
AYUNTAMIENTO



Contenido

JARRAIBIDE OROKORRAK	3
WEB ORRIAK.....	3
Kodeen kudeaketa	3
Antolaketa.....	4
Ekintza burutzeko gomendioak.....	4
LH1-LH3RAKO IHESGELAREN PROBEN AZALPENA.....	5
Koloreen magia	5
Zuhaitz misteriotsua.....	5
Erlaxatzen zaituen zuhaitza	5
250 milioi urte baino gehiago.....	5
Nola du izena?.....	5
Zein da zuhaitz honen kodea?.....	6
LH4-LH6RAKO IHESGELAREN PROBEN AZALPENA.....	7
Zuhaitzaren koloreak.....	7
Egurrezko ohol nahasiak	7
Letra nahasiak	7
Erantzun zuzena	8
Betaurreko magikoak	8
Hosto misteriotsuak	8
DBH1-3RAKO IHESGELAREN PROBEN AZALPENA	9
Bizitzaren ura	9
Nola du izena zuhaitz honek.....	10
Kodifikatutako mezua	11
Zuhaitzen izenak.....	11
Zenbaki ezkutuak	11
Zuhaitzen enborrak	12
DBH4-BATXIRAKO IHESGELAREN PROBEN AZALPENA.....	13
Zuhaitz baten egunerokoa	13
Zuhaitz bereziak	14
Hostoen dadoa	14
Zuhaitzen magia:.....	15

Hosto baten atalak15
Zuhaitzak neurtzen.....16

JARRAIBIDE OROKORRAK

WEB ORRIAK

Ihesgiletara sartzeko webgunea honako hau da:

Hasierako orria: <https://sacoderetos.com/erandio-eskape/hasiera>. Lotura honetan ihesgiletarako sarbideak daude eta ihesgela bakoitzari dagokionez aukera hauek:

- **Sartu:** Ihesgelara sartzeko, lehendik sarbide-kodea baduzu.
- **Kodeak:** Sarbide-kodeak eskatzeko (ikasgela bakoitzeko bat edo ikasgela bakoitzean parte hartzen duen ikasle-talde bakoitzeko bat).
- **Fitxategiak:** ihesgelaren pdf fitxategiak deskargatzeko.
- **Jarraibideak:** Plataformaren jarraibideak eta proba bakoitzari buruzko azalpenak dituen fitxategia deskargatzeko sarbidea.

Kodeen kudeaketa

Ikasgela bakoitzean parte hartzen duen ikasle talde bakoitzeko kode bana eskatu ahal izango da.

- **Kode bat ikasgela bakoitzeko:** Gelako kode bakarra izateko aukera hautatzen bada, irakasleak kodea eskatuko du hasierako orrialdeko “Kodeak” aukera hautatuz (ikusirik aurreko atala), eta ekintza hauek egingo ditu:
 1. Sartu gelako “Nick” (ikastetxea + gela + letra). Adibidez: ALTZAGA-LH1B
 2. Zure helbide elektronikoa adierazi.
 3. Egin klik segurtasun-kontrollean
 4. Sakatu bidali botoia.

Laster, erabiltzaile-kode bat jasoko duzu posta elektronikoa (jasotzen ez baduzu, Spam karpeta dagoen egiaztatu beharko duzu). Kode hori hasierako orriko **Sartu** estekatik (ikusirik aurreko atala) ihes-gelara sartzeko erabiliko da.

- **Talde edota gela bakoitzeko kode bat:** Talde bakoitzak bere kodea izan dezan, aurreko puntuan azaldutako kode-eskaera honela egingo da:
 - Zenbait aldiz eskatuko da kode bat hasierako orriko “Kodeak” aukeran. Kodea eskatzen den aldiro, talde-izen berri bat jarriko da “Nick” eremuan. Adibidez: ALTZAGA-LH1B-TALDE1.
 - “Kode berria” kontrollean klik egingo da, eskatutako posta elektronikora beste kode bat bidaltzeko. Postan sortu diren kode guztiak adieraziko dira.

Antolaketa

Ihes-gelak ondo burutzeko hurrengo argibideak jarraitu behar dituzue:

- Parte hartzaileak 3 edo 4 pertsonako taldeetan elkartu.
- Gutun-azal baten sinboloa daukaten orriak inprimatu eta bakoitzak gutun-azal batean sartu. Talde bakoitzeko bat inprimatu.
- Azkenengo proba duen gutun-azala desberdindu daitekeen era batean markatu.
- Lupa baten sinboloa duten orriak inprimatu eta gela osoan zehar eskegi.
- Ordenagailu bat prestatu, <https://sacoderetos.com/erandio-escape> webgunean sartu eta kodea sartu.
- Azaldu enigma guztiak ebatzi beharko dituztela istorioa jarraitu ahal izateko. Proben ordena berdina dio, beti ere azkenengo proba amaierarako uzten den bitartean.
- Taldeetako batek enigma baten erantzuna dakien bakoitzean, web gunean hautatu eta erantzuna sartu. Asmatzen ez bada, proba berrikusi beharko dute eta berriro saiatu lortu arte.
- Azkenengo proba denek elkarrekin egin beharko dute. Baina honetaz haiek jabetu beharko dira.

Ekintza burutzeko gomendioak

Jarraian, partaideen motibazioa handitzen lagunduko duten aholkuak azalduko dira:

- Adierazi helburua ez dela probak ahalik eta azkarren bukatzea. Hobe da talde lanean aritzea, proba bakoitza lasai irakurritz.
- Game Masterrak (ekintza zuzentzen duen pertsonak) enigma bakoitzaren ebazpena ezagutu beharko du, behar duenari lagundu ahal izateko. Horregatik gomendagarria da proba bakoitza aurretik ikasita izatea.
- Ekintza hainbat egunetan egin daiteke, ekintza partaideentzako erakargarria bada.
- Talde bakoitzak hurrengo materiala izan beharko du:
 - Partaide bakoitzeko zelofan gorri zatitxo bat.
 - Boligrafo edo arkatz bat partaide bakoitzeko.
 - Artazi bat.
 - Idazteko orriak

LH1-LH3RAKO IHESGELAREN PROBEN AZALPENA

Koloreen magia

- **Azalpena:** Astigarra zuhaitzaren hostoak urtaroak igaro ahala, kolore ezberdinak jasotzen ditu. Proba honetan hostoen koloreen ordena jarri beharko da. Horretarako, proba honi egokitzen zaion pistara joan, eta bertan, astigarraren 4 hostoen koloreak agertuko dira eta horien gainean zenbakiak.
- **Erantzuna:** **Gorria-Berde-Marroia-Horia**

Zuhaitz misteriotsua

- **Azalpena:** Kode sekretu bat dago mezu ezkutu batekin. Mezua argitzeko, "siluetak" pistara abiatu eta ikusten den sinbolo bakoitzaren azpian letra bat agertzen da. Sinboloak letrekin ordezkatu eta mezua lortuko da. Mezua hauxe da: "Hostoak erpin biribiletan amaitzen dira". Mezua behin lortuta, hostoen formak eta izenak agertzen diren pistetara abiatu, eta erpin biribila duen hostoa zein den asmatu beharko da.
- **Erantzuna:** HARITZA

Erlaxatzen zaituen zuhaitza

- **Azalpena:** Proba honetan bi ezaugarri bereizgarri agertzen dira; alde batetik, hostoaren forma, eta bestetik, hosto honek loreak dituela eta erlaxatzeko balio digula esaten du. Hostoaren forma jakinda, hostoen formak eta izenak agertzen diren pistetara abiatu. Edo bestetik, hosto honen loreekin edari lasaigarria idatzita dagoen pistara jo. Bi modu horiek baliozkoak dira.
- **Erantzuna:** EZKIA

250 milioi urte baino gehiago

- **Azalpena:** Zuhaitz honen hostoa abaniko forma du, zuhaitzik zaharrena dela ere esaten du. Abaniko forma duen hostoaren pistara jo, eta bertan, 1000 urte iraun dezakeela adierazten du.
- **Erantzuna:** GINGKOA

Nola du izena?

- **Azalpena:** Mezu ezkutu bat dago eta lortu behar da dauden koloreetako letra guztien artean. Horretarako, zelofan gorri bat beharko da mezua irakurtzeko. Horrela, letra urdin eta berdeak ikusiko dira.

*Garrantzitsua: zelofan gorria lodi samarra izan beharko da mezua ondo ikusteko.

Mezua hauxe da: "Bere hostoek bihotz forma dute".

Behin mezua lortuta, hostoen formak eta izenak agertzen diren pistetara jo, eta bihotz forma (buruz behera dago hostoa) duen hostoa zein den asmatu beharko da.

- **Erantzuna:** JUDASEN ARBOLA

Zein da zuhaitz honen kodea?

- **Azalpena:** Proba honetan hostoaren forma agertzen da, eta beraz, hostoen formak eta izenak agertzen diren pistetara jo behar da. Bertan, hostoaren azpian kode bat dago.
- **Erantzuna:** 8762 => (ALBOA)

LH4-LH6RAKO IHESGELAREN PROBEN AZALPENEA

Zuhaitzaren koloreak

- **Azalpena:** Zuhaitz hosto ezberdinak agertzen dira eta gezi handi bat. Gezi hau lehenengo hostotik azkenengo hostoraino doa, eta hostoen ordena adierazten du. Lehenik eta behin, jakin beharko da hosto bakoitzaren izena, eta horretarako, hostoen formak eta izenak agertzen diren pistara abiatu beharko da. Behin hostoen izenak jakinda, beste pista batean zuhaitz hostoen izenak kolore desberdinetan idatzita egongo dira. Hostoen izenak eta beren koloreak jakinda, gezia erreferentzia moduan hartuta, hostoen koloreak ordenan jarri beharko dira.
- **Erantzuna:** **Horia(urkia)**-**Urdina(alboa)**-**Zuria(Hurritza)**-**Berdea(haritza)**-**Grisa(indi gaztainondoa)**-**Marroia (pagoa)**.

Egurrezko ohol nahasiak

- **Azalpena:** Egurrezko oholetan letra nahasiak eta irudi bat ere badagoela dirudi. Zer mezu eta irudi dagoen asmatzeko, ohol bakoitza artaziekin moztu beharko dute, eta ondoren, ordenatu. Hori eginda, agertzen den mezua honakoa da: “Zein da zuhaitz honen kolorea?”. Eta horrekin batera agertzen den irudia: Alboaren hostoaren forma.
Galdera horri erantzuteko, eta alboaren hostoa dela jakinda, zuhaitz hostoen izenak kolore desberdinetan idatzita dauden pistara joan, eta hosto horren kolorea jakin ahal izango da.
- **Erantzuna:** URDINA =>(ALBOA)

Letra nahasiak

Azalpena: Proba hau ebazteko, letren koadro bakoitza hartu, eta dagokion pistara jo, kolore-marrak dituzten antzeko koadroak dituena. Marrei jarraituz, koadro bakoitzak zuhaitz bati buruzko pista izango du.

Zuhaitza identifikatu ondoren, zuhaitz bakoitzaren lehen letra eta dagokion kolorea idatziko dituzte. Ordena jakiteko, pistara jo behar dute, karratu handia eta ibilbidearekin. Bide horretan letra bakoitzaren kokapena adierazten duen mezu bat dago. Hauek dira aurkitu beharreko mezuak:

- MEZUA BERDEA: “**Enbor zuria du**” -> **URKIA**
- MEZU URDINA: “**Bizkaiko askatasunaren ikurra**” -> **HARITZA**

- MEZU GORRIA: “Egurrarekin papera egiten da” → EUKALIPTO
 - MEZU LARANJA: “Hosto iraunkorra du” → PINUA
 - MEZU ARROSA: “Sorginduta zegoela uste zen” → HALTZA
 - AZKEN MEZUA: “Hostoen ordena honako hau da: berdea- urdina- gorria- laranja eta larrosa”
- Erantzuna: UHEPH

Erantzun zuzena

- **Azalpena:** Kode sekretu bat dago mezu ezku batekin. Mezua argitzeko, “kode sekretuak” pistara jo eta ikusten den sinbolo bakoitzaren azpian hizki bat agertzen da. Sinboloak hizkiekin ordezkatu eta mezua lortuko da.

Mezua hau da: “Zenbat eukalipto espezie daude?”

Galdera zein den jakinda, eukaliptoaren pistara joango gara bertan baitago zeintzuk diren ezaugarri bereizgarrienak.

- Erantzuna: 700

Betaurreko magikoak

- **Azalpena:** Hosto irudi ezberdinak agertzen dira kolore desberdinetan. Zelofan gorri baten laguntzarekin gainerakoen gainetik hosto bat nabarmenduko da, kolore urdinekoa dena. Hostoaren forma zelakoa den ikusita, hostoen formak eta izenak agertzen diren pistara joan, eta bere izena jakin ahal izango da.
- Erantzuna: HALTZA

Hosto misterioitsuak

- **Azalpena:** Hiru hosto ezberdin daude, eta bakoitzaren formari erreparatu beharko diogu haien izena zein den jakiteko. Horretarako, hostoen formak eta izenak agertzen diren pistara jo, eta beren izenak jakin ahal izango dira. Ondoren, zuhaitz hostoen izenak kolore desberdinetan idatzita dauden pistara joan, eta hosto horien koloreak jakingo ditugu.

Bestetik, hosto bakoitzaren gainean A-B-C hizkiak daude, eta hauek esanguratsuak izango dira hurrengo pista ulertzeko. “Korapilatuta” pistara joango gara bertan baitago azkenengo erantzuna. Hosto bakoitzaren izena dakigunez eta hostoek hizki bat gainean dutenez, bakoitzaren ibilbidea jarraitu beharra dago eta azkenik, hostoen ordena lortuko dugu. Hori guztia lortuta, hostoen koloreak idatzi beharko dira ordena egokian.

- Erantzuna: C(Haltza-Beltza), A(Hurritza-Zuria), B(Ezkie-Larrosa).

DBH1-3RAKO IHESGELAREN PROBEN AZALPENA

Bizitzaren ura

- **Azalpena:** Zuhaitz hosto ezberdinen izenak gezi baten bidez dagokien hosto formarekin lotu beharko dira. Lehenengo eta behin, pistara jo, eta bertan hostoen izenak eta beren forma ezberdinak egongo dira.

Proban ur-tanta batzuk ere badaude, zenbakiak eta koloreak dituztenak; beraz, hostoaren izena dagokion formarekin elkartzeko prozesuan, tanta batzuetan geziak elkartuko dira, eta horietan dago erantzuna. Hau da, 4 ur-tanta desberdinetan: tanta 1 (zuria), tanta 2 (gorria), tanta 3 (marroia) eta tanta 4 (horia).



- **Erantzuna:** 1. ZURIA, 2. GORRIA, 3. MARROIA, 4. HORIA

Nola du izena zuhaitz honek

- Azalpena: Proba honetan zenbaki *puntuak ordena zehatz batean elkartu* beharko dira, izkutuan dagoen zuhaitz hosto baten forma aurkitzeko. Zenbakiaren ordena zehatza jakiteko, "*Zuhaitzen zenbakiak*" pistara joan behar da, eta labirintotik irteteko bideari jarraitu beharko zaio. Irteera bilatzeko bidean zehar zenbaki zehatz batzuen seriea aurkituko da: (30-9-17-15-3-1-16-6-4-10-14-23-11-20-12-5-24-48-38-25-2-13-18-7-8-19-12-26-22-28). Hori lortuta, pistak datu garrantzitsu bat emango du: "*nahi ez diren zenbakiak saltatu beharko dira, nahiz eta bidea zuzena izan*". Aurrekoa jakinda, zuhaitz hostoen ezaugarriak agertzen diren pistetara jo beharko dugu; eta bertan datu ezberdinak agertuko dira:

- Ez erabili 30. zenbakia (EUKALIPTOA)
- Kontuan ez hartu bigarren zenbaki bikoitia (URKIA)
- 12. zenbakia ez hartu kontuan (HARITZA)
- Lehen zenbaki bikoitia ez hartu kontuan (HURRITZA)
- 20. zenbakia ez hartu kontuan (PAGOA)
- Hirugarren zenbaki bikoitia ez hartu kontuan (ALBOA)
- Zortzian amaitzen diren zenbakiak (PIKONDOA)
- 10. zenbakia ez izan kontuan (INDIGAZTAINONDOA)

Datu horiek irakurrita, *hostoaren forma marraztu* ahal izango da eta hosto horren izena zein den asmatu beharko da, hostoen izenak eta beren forma ezberdinen pistetara joanda.



- **Erantzuna:** EUKALIPTOA. => Zenbaki seriea= 19 -8 -2 -16 -25 -4 -10 -24 -17 -7 -9 -1 -12 -20 -23 -22 -6 -3 -14 -11 -13 -18 -5 -21 -15.

Kodifikatutako mezua


- **Azalpena:** Kode sekretu bat dago mezu ezkutu batekin. Mezua argitzeko, “Zenbaki Ezkutuak” pistara jo eta ikusten den sinbolo bakoitzaren azpian letra bat agertzen da. Sinboloak letrekin ordezkatu eta mezua lortuko da. Mezua hauxe da: *“Zein da munduko zuhaitzik zaharrena? Begira ezazu begi gorriekin”*. Mezua begi gorriekin ikusteko esaten ari da, beraz “Letra nahasiak” pistara joan, eta zelofan gorri erabiliz letra berdeak eta urdinak irakurriko dira. Horrela, aurreko galderaren erantzuna izango dugu: “Ordenatu hurrengo hizkiak. NGGIKOA.”
- **Erantzuna:** GINKGOA

Zuhaitzen izenak

- **Azalpena:** Proba honetan giltzarrapo hau osatzen duten 6 letrak bilatu beharko dira. Horretarako, proba honetan agertzen diren zuhaitzei erreparatu beharko diegu, eta zuhaitz horiek agertzen diren pistetara abiatuko gara. Bertan, giltzarrapoaren daturen bat agertuko da, adibidez:
 - Giltzarrapoan seigarrena da (URKIA)
 - Giltzarrapoan lehena da (HARITZA)
 - Giltzarrapoan bosgarrena da (HURRITZA)
 - Giltzarrapoan hirugarrena da (PAGOA)
 - Giltzarrapoan bigarrena da (ALBOA)
 - Giltzarrapoan laugarrena da (INDIGAZTAINONDOA)Datu guzti horiek jakinda, zuhaitz hostoen izenen eta dagokien formaren pistetara abiatu, eta zuhaitz hostoen formen azpian HIZKI batzuk egongo dira, eta azkenik, hizki horien ordena jakingo dugu giltzarrapoa osatzeko.
- **Erantzuna:** BOISCR => 1. Haritza (**B**) 2. Alboa (**O**) 3. Pagoa (**I**) 4. Indigaztainondo(**S**) 5. Hurritza (**C**) 6. Urkia (**R**)

Zenbaki ezkutuak

- **Azalpena:** Proba honetan *haritzaren hostoak elkartu eta hurritzak emandako zenbakiaren kodea lortu* beharko da. Kodea lortu ahal izateko, horma-irudi batzuk agertzen diren pistetara joko dugu, eta modu estrategikoan horma-irudiak elkartuko ditugu: agertzen diren haritz guztiak elkartuz. Pauso hori eginez, horma-irudian agertzen diren hurritzen hostoetan ibilbidea ikusiko dugu eta zenbaki kode sekretua agertuko da.



- **Erantzuna:** Kodea= 347283

Zuhaitzen enborrak

- **Azalpena:** Proba honetan 3 zuhaitz ezberdinen enborrak ezagutu beharko dira. Zuhaitz enbor bakoitzean zenbaki bat agertzen da zuhaitzen ordena adieraziko duena. Zuhaitz enborrak zeintzuk diren jakiteko, zuhaitz bakoitzaren ezaugarriak agertzen diren pistetara jo behar da, eta bertan enborrei buruzko datuak irakurriko ditugu, horrela jakingo dugu enbor horiek zer zuhaitz diren. Azkenik, zuhaitzen enborren izenak jakinda, zuhaitz hostoen forma ere jakingo dugu, eta beraz, zuhaitz hosto ezberdinen formen pistan hizki batzuk agertzen dira azpian, eta ordena zehatz batean hizki horiek jarri beharko dira.
- **Erantzuna:** KOR => Ordena=1.HURRITZA(K)- 2.ALBOA(O)- 3.URKIA(R).

DBH4-BATXIRAKO IHESGELAREN PROBEN AZALPENA

Zuhaitz baten egunerokoa

- **Azalpena:** Proba hau zuhaitzaren eraztunak irakurtzean eta interpretatzean datza, zuhaitzaren hazkunde-denboraldiak irudikatzen baitituzte. Giltzarrapoa askatzeko, enberrari erreparatu beharko diogu; izan ere, eraztunek informazio baliagarria ematen baitigute. (*Giltzarrapoa koloreekin erlazionatuta dago.*)

Horretarako, “*Pinu baten istorioa*” pistara abiatuko gara, zuhaitz baten bizi-zikloaren adierazpena ematen baitigu. Behin irakurrita, “*Zuhaitz baten bizitza irudietan*” pistara ere joango gara, eta koloreen bitartez interpretatuko dugu erantzuna jakiteko.

Pistak enborren barruko zatia ilunena dela esaten du. Hau da, *beltza*, suposatuko dugu. Proban 8. zenbakia dagoen lekuan, enberraren erdigunea adierazten duena da eta, gainera, bere jaiotza ere adierazten du; giltzarrapoaren **8.** zenbakia **BELTZA** koloreari dagokio orduan. Kolore *horiaren* irudiak sute bat egon dela adierazten du. Probara goaz eta zuhaitzaren eraztunetan 4. zenbakian dagoen lekuan zuhaitza erre dela ondorioztatuko dugu; beraz, **laugarrena** giltzarrapoa **HORIA** da. Kolore **URDINA**k bizitzako lehen urteak deskribatzen dituela dirudi, eta **2. zenbakia** dela suposatzen dugu, zuhaitza modu osasungarrian hazten joan baitzen. Kolore **BERDEAK** zuhaitza inklinatuta hazi dela erakusten digu; horregatik ondorioztatzen dugu giltzarrapoa **3.** dela, gehien hazi diren eraztunen zati horretan eta beste zati batean gutxiago hazi baita. Kolore **GORRIA** duen irudiaren arabera, zuhaitza moztu egin dela dirudi, eta **zazpigarrenak** zuhaitzaren azken hazkunde-eremua izan zuela erakusten du. Kolore **BELTZA** duen beste irudian, hau da, mozorro batzuk ageri dira zuhaitzaren inguruan, eta hauek zuhaitzaren hazkundera oztopatu zutela ondorioztatzen dugu, beraz, **6.** zenbakia izango da. Irudiaren kolore **MARROIA**k adierazten digu zuhaitza ez zela behar adina hazi, euririk egin ez zuelako, eta horren ondorioz, lehorte bat sufritu zuen, beraz, **1.** zenbakia dela suposatzen dugu. Eta azkenik, irudiak erakusten digu zuhaitzak hazkunde egokia izan duela, ur-xurgapen handia izan duelako, eta irudi horren kolore **GRISA** **5.** zenbakia dagokio.

- **Erantzuna:** MARROIA, URDINA, BERDEA, HORIA, GRISA, BELTZA, GORRIA, BELTZA => **1. LEHORTEA – MARROIA 2. LEHENENGO URTEAK-URDINA 3. INKLINATUTA HAZI/BERDEA 4. ERRE – HORIA 5. ARAZORIK GABE HAZI- GRISA 6. ZOMORROAK ERASO- BELTZA 7. MOZTU – GORRIA 8. JAIOTZA-BELTZA**

Zuhaitz bereziak

- **Azalpena:** Proba honetan Euskal Erkidego Autonomoko lurralde bakoitzeko (Bizkaia-Gipuzkoa-Araba) zuhaitz bina aukeratu behar dugu, beren ezaugarrien arabera, hau da, Bizkaia= Diametro gehien duena, Gipuzkoa=Perimetro gehien duena eta Araba=Altuera gehien duena.

Hori lortzeko, EAeko lurralde bakoitzean dauden zuhaitzak eta beren ezaugarriak agertzen diren pistetara joko dugu, eta informazioa irakurriz lortuko dugu lurralde bakoitzari dagozkien 2 zuhaitz mota:

- Bizkaia diametro handiena: Garaiko artea (60m) Muxikako artea (26 m)
- Gipuzkoa perimetrarik handiena: Bergarako magnolia (6,2m) Aizarnabalgo artea (5,5m)
- Arabako altuera handiena: Altubeko haritza (34m) Artziniagako artea (25m)

Hori identifikatu ondoren, zuhaitz mota bakoitzaren hostoak zeintzuk diren jakin beharko da, horretarako pistetan zuhaitz horien hostoen formak daude. Azkenik, zuhaitz hostoen formen eta horien azpian dauden hizkien pistara joan, eta EAeko lurralde bakoitzaren kode sekretua lortuko dugu:

- Bizkaia diametro handiena: Garaiko artea (60m) Muxikako artea (26 m) **kodea: S S**
- Gipuzkoa perimetrarik handiena: Bergarako magnolia (6,2m) Aizarnabalgo artea (5,5m) **kodea: I S**
- Arabako altuera handiena: Altubeko haritza (34m) artziniagako artea (25m) . **kodea: U S**

Kode sekretua asmatzeko, EAeko probintzia bakoitzak orden zehatza dauka: 1. Araba 2. Bizkaia 3. Gipuzkoa

- **Erantzuna:** USSSIS

Hostoen dadoa

- **Azalpena:** Proba honetan dadoaren zein alde egongo diren lurraren kontra asmatu beharko dugu, eta hori lortzeko ikuspegi espaziala erabili beharko dugu. Itxuraz, dadoan 3 zuhaitz hostoren forma baino ez dugu ikusten, baina dadoaren alde guztietan zein zuhaitz hosto dauden jakiteko, "Hostoen dadoa" pistara joango gara. Horrela, bisualizatuko dugu dadoa zein alderekin ukituko duen lurra: pinua, pegoa, albo, haritza, pinua, pegoa, albo, urkia, magnolia, pinua. Pistetan zuhaitz hosto bakoitzaren izena egongo da dagokion formarekin, horrela jakingo dute zeintzuk diren zuhaitz hosto ezberdinak. Azkenik, kode sekretua lortu beharko da proba gainditzeko, hortaz, zuhaitz hostoen formen azpian hizkiak dauden pistara joan eta bertan erantzuna lortuko dugu.

- **Erantzuna:** KLAUKLAPIK

Zuhaitzen magia:

- **Azalpena:** Proba honetan alde batetik, natura behatzeko, sentitzeko eta hautemateko hainbat ekintza edo aholku deskribatzen dira. Eta, bestetik, zuhaitzekin eta naturarekin lotutako hainbat ezagutza edo berezitasun. Beraz, ekintza horiek dauden zuhaitzen berezitasunekin erlazionatu eta lotu beharko dituzte. Eta hori ez ezik, probaren inguruan dauden irudiekin ere erlazionatu beharko dituzte. Irudi horiek zenbaki batzuk ere badituzte. Adibidea: (1)=> Lasaitu zaitetz belarra dagoen leku batean, ibili eta sentipen desberdinak aurkitu (f)=> Zuhaitzen azpian ez da belarrik egoten, biek argiaren beharra dutelako (vi)=> BELARRA irudia.

- **1FVI**
- **2GI**
- **3EV**
- 4DIII
- 5BII-
- 6CVII
- **7AIV**

Elementu guztiak behin elkartuta eta konbinazio guztiak edukita, “konbinazio ezberdinak” dauden pista joango gara. Pistan, konbinazioek kolore batzuk dituztela ikusiko dugu, aurretik lortu ditugun konbinazioak erabiliko ditugu soilik. Horretarako konprobatuko dugu pistan zeintzuk diren lehendik lortu ditugun konbinazio berdinak, eta haiei dagokien kolorea lortuko dugu kode sekretua asmatzeko:

- 1FVI - Grisa
- **2GI-Gorria**
- **3EV-Berdea**
- 4DIII
- 5BII-
- 6CVII
- **7AIV-Gorria**

- **Erantzuna:** Grisa, **Gorria**, **Berdea**, **Gorria**

Hosto baten atalak

- **Azalpena:** Proba honetan giltzarrapo kolorea askatu beharko dugu, behin zuhaitz hostoak zeintzuk diren jakinda. Probak zuhaitzaren atal ezberdinei buruzko informazioa ematen digu baina hobeto ulertzeko, “Landa Koaderno” pista joko dugu, bertan zuhaitz hostoaren datu zehatzagoak daudelako.


Proban, zuhaitz atal bakoitzean zenbaki bat dago giltzarrapoaren ordena zehatza jakiteko, eta baita beharrezko informazioa ere zuhaitz hostoa zein den asmatzeko. Adibidez, *enborra* = bere *linboa pertsona baten eskuaren antzekoa* da. Hori jakinda, landa koadernoan, zuhaitz hostoaren forma ikusi beharko dugu, jarraian, antzekoa den hostoa identifikatuko dugu, eta ondorioztatu beharko dugu astigarra izango dela. Ertza= Enborra zuria da eta ertza zerratuta dago. Hainbat zuhaitzek antzeko ertza dute baina hau modu irregularrean zerratuta dago, eta zuhaitz hosto hori urkia izango da. Linboa= Linboak oso estuak, luzeak eta asimetrikoak dira, eta beraz, eukalptoia izango da. Erpina= zuhaitzaren erpina barrurantz sartuta dago, ondorioztatuko dugu haltza dela.

Behin zuhaitz hostoen izena eta ordena zein den jakinda, giltzarrapoa askatzeko hosto bakoitzari dagokion kolorea lortu beharko dugu. Horretarako, "lan-koadernoan" zuhaitz hostoen izen guztiak nahasturik daudenez, aurretik lortu ditugunak erreferentziatzat harturik, izenak ordenatuko ditugu, eta beren koloreak jakingo ditugu.

- **Erantzuna:** => grisa, **urdina**, **horia**, **larrosa**. =>Zuhaitz hostoen ordena zehatza: Astigar, urkia, eukalpto, haltza.

Zuhaitzak neurtzen

- **Azalpena:** Oihane izeneko pertsonaia zurezko makila batekin zuhaitz bat ari da neurtzen, eta suposatuz dugu Oihane makilaren behealdearekin zuhaitzaren oinarria ikusten ari dela eta makilaren goialdearekin zuhaitzaren gailurra ikusten ari dela. Proba honetan, zuhaitzak zenbat zentimetro neurtzen duen jakin beharko dugu, eta horretarako, Oihaneren "Landa koaderno" pista baliagarria izango zaigu.



Nire pauso batek
95 zentimetro
neurtzen ditu...

Beraz, landa koadernoaren datu teknikoa $a=b$ y $\beta=90^\circ$ bada, $A=B$ dela kontuan harturik, Oihane dagoen lekutik zuhaitzera dagoen distantzia, zuhaitzak neurtzen duenaren berdina izango da.



Baina nola jakingo dugu zer distantzia dagoen neskarengandik zuhaitzeraino?

Oihanek zuhaitzeraino eman behar dituen urratsak kontatuko ditugu, **8 pauso**, eta, bestetik, kontuan hartuta “Landa-koadernoan” honako hau ere adierazten dela: “**Nire pauso batek 95 zentimetro neurtzen ditu**”.

Beraz, 8 pausu x 95 = **760** zentimetro

- **Erantzuna: 760 =>** Zuhaitzak 760 zm. neurtzen ditu.